

Alergiak lanekide ditugunean

300 substantzia baino gehiago badira lantokian alergia sortzen dutenak, baina oso-oso gutxi diagnostikatzen dituzte

Lanak alergia sortzen digula esaten badugu, barre murrizta egingo du gure ondokoak, txantxetan ari garelakoan. Uste izango du lanari diogula alergia. Besterik da, ordea, lanean alergia sortzea. Benetako arazoa da hori, baina askok ezkutatu egiten dute, lana galtzeko beldurrez. Alergiarekin edo narritadurarekin zerikusia duten lan gaitasunek arlo askotako langileei erasaten diete: eraikuntzakoei, margotzaileei, okinei, arotzei, ile-apaintzaileei, garbitasun lanetan aritzen direnei, osasun langileei, ikertzaileei...

ASMA. ERRINITISA ETA DERMATITISA

Lantokian egon daitezkeen zenbait substantzia arnasteak edo horiek eskuztatzeak alergia ekar dezake. Asma eta errinitisa dira holakoan adibide —biak ere arnasketa patologiak-, eta ukipenezko dermatitisa ere bai. Lanak eraginda gehien agertzen den arnasketa patologia **laneko asma** deitzen dena da. Asma duten guztietatik, %10-25 izango dira lanak sortuak.

Gainera, helduaroan asma sortzen zaien erdiei, lanak eraginda agertzen zaie. Datu horiek eman ditu, behintzat, European 7.000 gaixorekin egin den ikerketa batek. Manolis Kogevinas-ek gidatu zuen ikerketa hori (Bartzelonako Medikuntza Ikerketen Udal Institutuko kide da), eta The Lanceten argitaratu zuten 2007. urtean.

Eztabaidarik ere ez da falta gai horren inguruan. Zientzialari batzuek diote lanean sortzen den asma dela laneko asma, eta beste batzuen ustez, berriz, lan baldintzen eraginez larriago bihurtzen diren asma kasuak ere sartu behar litrateke laneko asma deitzen den horren barruan.

Errinitis alergikoa da beste lan gaitasun bat. Sudur mukosa hanpatu egiten zaio gaixoari, sudur zuloak itxi, doministikuka hasten da, azkura izaten du, muki jariora eta, batzuetan, usaimena galtzen du. Sudurrari ez ezik begiei ere eragiten badie, errinokontjuntibitisa deitzen zaio. Errinitis alergikoa asmari lotuta joan ohi da, eta horren erakusgarri da honako datu hau: errinitisa dutenen % 20 eta 40 inguruk asma izaten dute, eta asma dutenen % 30 eta 50 inguruk, errinitisa. Joaquim Mullol-ek egindako ikerketa baten emaitzak dira horiek (Bartzelonako Hospital Clinic-en aritzen da Mullol, eta Errinologia Saileko koordinatzaile da).

Ukipenezko dermatitisa azalari erasaten dio. Ekzemak agertzen dira, nege-lak, hanturak, azkura, babak eta, kasurik larrietan, ultzerak ere bai. Alergológica 2005 izeneko txostenak dio azken hamar urteetan Espainian bikoiztu egin direla laneko dermatitisa; % 2,4 ziren 1992an eta % 4,3, berriz, 2005ean. Espainiako Alergologia eta Immunologia Klinikoko Elkartek (SEaic) egiten du txosten hori.

ALERGIAK ERAGINDA EDO NARRITADURAK ERAGINDA

Alergia definitzerakoan, esan ohi da erreakzio desegoki bat dela; zenbait substantziak alergia eragiten diote gure organismoari, eta organismoak erantzun egiten du. Substantzia horiek alergenok dira, eta modu batean baino gehiagotan irits daitezke gure gorputzera: arnastuta, ukituta, irentsita edo zizta eginda. Asmak, errinitisa eta ukipenezko dermatitisa bi jatorri izan ditzakete: narritadurak eraginda sor daitezke edo alergia eraginda. ►





ENPRESAREN BETEBEHARRAK

- > Etiketak jarri behar dizkie arrisku-tsu izan daitezkeen produktu guztiei. Etiketari argi agertu behar du zein diren produktu horren gai toxikoak, erregarriak edo lehergarriak, eta horietako bakoitza nola erabili eta gorde behar den ere adierazi behar du zehatz-mehatz.
- > Babes neurriak jarri behar ditu langilearen eskura: kaskoak, esku-larruak, uniformeak (suaren aurkakoak ere bai, behar izanez gero) eta botak. Lan mota bakoitzak badi bere araudia Laneko Segurtasunaren arloan, erakundeek aski ongi finkatua, eta hori bete beharra dago.
- > Langile bati laneko alergiaren bat sortzen bazaio, enpresak ikertu egin behar du zergatik sortu den, eta konponbidea jarri behar dio. Produktu jakin horrek beste alergia kasurik eragin duen aztertu behar du, eta bitartekoak jarri, berriz ez gertatzeko kutsadura arazorik, ihesik, garbitasun gabeziarik edo erabilera okerrik.

Alergikoak direnean, organismoaren sistema immunologikoak erantzuten du, eta E immunoglobulina gehiago sortzen du. Immunoglobulina guztiak antigorputz edo babesak dira, eta mikrobioei eta bakteriei erasotzen diete.

Immunoglobulina guztietatik, E motakoak egiten du parasitoen eta helmintoen aurka (har moduko batzuk dira azken horiek), eta erreakzio alergiko bat gertatzen denean, ugariago agertu ohi da. Pertsona alergikoen gazurak, adibidez, % 70 eta % 80 gehiago edukitzen du E immunoglobulina. Erreakzio immunologiko hori gertatzen ez denean, narritadurak eragindakoak izango dira asma, errinitisa eta dermatitisa; hau da, pertsona horrentzat toxikoak diren substantziekin harreman zuzena izateagatik sortzen dira.

ZERK SORTZEN DU LANEKO ASMA ETA ERRINITISA?

Arrazoi beragatik sortzen dira bai bata eta bai bestea. Ramon Orriols-ek koordinatu duen ikerketa batean, laneko asma sor dezaketen 300 gai baino gehiago identifikatu dituzte. Archivos de Bronconeumología aldizkarian argitaratu dute ikerketa hori (SEPAR Espainiako Neumologia eta Kirurgia Torazikoko Elkartearen argitalpen ofiziala da). Honako gai hauek izan daitezke alergenok:

- ♦ **Isozianatoak.** Autogintzan erabiltzen dituzten plastiko, margo eta apargoma batzuetan agertu ohi dira. Sektore ho-

rretako margotzaileek eta industria eskuztatzzaileek izan ohi dute.

- ♦ **Irinek** alergia sor diezaiekete okin eta gozogileei, akainek eraginda, alfa-amilasa entzimak eta are sojak ere.
- ♦ Egurrak **azido plikatikoa** du, eta arotzei alergia eragin diezaieke.
- ♦ **Laborategiko animalien ileek** ere alergia ekar diezaiekete han dabiltzan ikertzaileei; saguen ileak, arratoiaren, untzienak.
- ♦ **Aerosolak eta garbiketa produktuak** aproposak dira laneko asma sortzeko. 2007. urtean Europan egin zuten ikerketa batek erakutsi du lanean asma izan duten zazpi lagunetatik bati produktu horiek eraginda sortu zaiola. American Journal of Respiratory and Critical Care Medicine aldizkarian agertu zen ikerketa hori.
- ♦ Eta ile tinduak eta bestelako **koloragariak** ere (hena gorri eta beltza) alergenok izan daitezke. Tinduek, adibidez, **persulfato gatzak** edukitzen dituzte, eta laneko asma sortzen diete ile-apaintzaileei. Laneko asma gehien eragiten duten produktuen artean, hirugarren edo laugarren lekuan daude horiek.

ZERK SORTZEN DU LANEKO DERMATITISA?

250 gai baino gehiago aurkitu dituzte laneko dermatitisa sor dezaketenak. Hauts eta likido artean aritzen diren langileek dute arrisku gehien, enpresa metalurgiko-



etan aritzen direnek, batez ere. Kobaltoa, nikela eta merkurioa dira metalik kaltegarrienak. Kontserba industriari lan egiten dutenek ere arrisku handia dute dermatitisa edukitzeko.

Eta zenbat eta produktu gogorragoekin lan egin, orduan eta lehenago ager daiteke dermatitisa langileengan. Hori gertatzen zaie, adibidez, ile tinduei alergia dieten ile-apaintzaileei. Zementuarekin lan egiten dutenei, ordea, besteei baino geroago ager dakieke.

LATEXA

Aipamen berezia egin beharra dago latexak sortzen duen alergiari buruz. Izan ere, 800.000 lagun inguru dabilta Espainian latexari alergia hartuta; halaxe jakinarazi du Latexari Alergia diotenen Espainiako Elkarteak. 40.000 gai baino gehiago dauka latexarekin eginak edo latexa dutenak.

Osasungintzako langileei eragiten die, batak bat. Eskularruak, zundak, lotura itsaskorak, arteria tentsioa hartzeko mahukatxoak, suspertze maskak eta oxigeno maskak, esparatruak, botiken tapoiak... hainbat tresnak daukate latexa. Zenbait ikerketak diotenez, osasun langileen % 12-16ri eragiten die latexak, eta gainerako herritarren artean, berriz, % 1-3ri.

DIAGNOSTIKOA

Laneko arnasketa-gaixotasun alerriko baten diagnostikoa egiteko, langileak zer lan ibilbide izan duen jakin beharra

dago zehatz-mehatz, eta zein baldintzatan aritu izan den ere bai. Horrez gain, hainbat proba egin beharko zaizkio langile horri, eta horietan ikusiko da immunoglobulinak zein mailatan dabilta, bai orotarikoak eta bai antigeno jakin batzuen aurkakoak: akainen, onddoen, polenen eta katu-txakurren aurkakoak. Bost antigeno horiek aztertuta, erraz jakin daiteke pertsona batek alergia ote duen. Diagnostikoa osatzeko, beste proba bat ere egin diezaiokete gaixoari: bronkio probokazio espezifikoa. Madrilen badago hori egiten duen erakundea, Jiménez Díaz Fundazioa, eta Bartzelonan ere bai, Hospital Vall d'Hebron-eko Neumologia Zerbitzua.

Laneko errinitisaren diagnostikoa egiteko, asmarena egiterakoan bezala jotzen dute: mediku dossier zehatz-zehatza behar izaten dute, odol analisiak egiten dituzte, azaleko probak eta probokazio proba kontrolatuak. Diagnostikoa osatzeko, errinomanometria egin dezakete, sudurra nola ixten den ikusteko, edo sudurreko arnas fluxua neur dezakete (Peak-flow), airea ongi pasatzen den edo ez ikusteko.

Ukipenezko dermatitisaren diagnostiko egiteko, gaixoa zein alergenoren eraginpean egon izan den aztertzen da, eta larruzaleko proba bat egiten zaio: adabaki modukoak itsasten zaizkio azalean, bakoitza alergenoren batekin, eta egun batzuk igarota, zer erreakzio izan duen ikusten da. ◀

LANEKO ASMA, HORIXE DA LANAK ERAGITEN DUEN ARNASKETA ARAZO OHIKOENA

LANGILE ALERGIKOARENTZAKO AHOLKUAK

- 1** Lanean asma, errinitisa edo dermatitisa sortu zaigula susmatu orduko, alergologoarengana edo neumologoarengana joan behar dugu, diagnostikoa egin dezan eta tratamendua jarri.
- 2** Alergia egonkortu denean, eta egiaztatzen badugu alergia sortu dugun alergenoa lantokian daukagula, lanpostua aldatzeko eskatu beharko dugu, eta enpresa bereko beste leku batera eraman gaitzate-la, gai horrek eragingo ez digun norabait.
- 3** Enpresak jarri dituen babes neurriak erabili behar ditugu: eskularruak, maskak, kaskoak... eta garbitasun arauak bete.
- 4** Erabili behar ditugun produktuen etiketak irakurri (garbigarriekin jardun behar badugu, edo bestelako gai erregarriekin), eta neurri egokiak hartu.
- 5** Latexak alergia sortzen badigu, eskumuturrean edo lepokoan ohar bat eramatea komeni da, eta mediku azterketa-aren bat egin behar digutenean edo ebakuntzaren bat, jakinarazi egin beharko dugu, latexa duen gairik erabil ez dezaten eta goma elastikoa dutenak ere ez.
- 6** Babes neurri hauek hartuta ere berdin jarraitzen badugu eta lan gaixotasuna dela egiaztatzen bada, lana utzi beharra izango dugu, beste arloren batera joaten saiatu, eta, besterik ezean, ezgaitasun agiria eskatzeko bidea landu beharko dugu eta kalte-ordaina eskatu.